BESTELAKO XEDAPENAK

HERRIZAINGO, JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

4358

EBAZPENA, 2012ko irailaren 17koa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena, Herri Administrazioarekin, Zuzenbide Publikoarekin edo Administrazio Zientziarekin zerikusia duten gai batzuei buruzko ikerketa sustatzeko diru-laguntzak emateko dena.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariak Herri Administrazioarekin, Zuzenbide Publikoarekin edo Administrazio Zientziarekin zerikusia duten gaiei buruzko ikerketak sustatzearren, merezimendu-lehiaketaren bidez, diru-laguntzak emateko 2012ko maiatzaren 11ko Ebazpena onartu zuen. Horrekin bat etorriz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengo artikulua.– Herri Administrazioarekin, Zuzenbide Publikoarekin edo Administrazio Zientziarekin zerikusia duten gaiei buruzko diru-laguntzak honako proiektu hauei ematea:

1.– «Las instituciones públicas ante el problema del efecto invernadero. Estudio comparado de las políticas de cambio climático en Europa a escala sub-estatal». Alberto de la Peña Varona.

2.– «El estatuto jurídico de la víctima en el derecho jurisdiccional penal español: análisis lege data y lege ferenda a partir de la normativa europea en la materia». Ixusko Ordeñana Gezuraga.

3.– «Identificación biométrica y protección de los derechos fundamentales: retos actuales y futuros desde una visión comparada». Leire Escajedo San Epifanio.

Bigarren artikulua.– Honako proiektu hauek izendatzea Herri Administrazioarekin, Zuzenbide Publikoarekin edo Administrazio Zientziarekin zerikusia duten gaiei buruzko diru-laguntzen ordezko esleipendun:

1.– «Políticas públicas, sistemas de información, transparencia y participación: el caso de la política de cooperación al desarrollo en la CAPV». Unai Villena Camarero.

2.– «El ordenamiento jurídico de los territorios históricos». Luis Ignacio Gordillo Pérez.

3.– «La presupuestación municipal en la Comunidad Autónoma del País Vasco». Alfredo Barrio Gil.

Hirugarren artikulua.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko irailaren 17a.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko Zuzendaria,
MARIA ENCARNACIÓN ECHAZARRA HUGUET.